

**NOR/NORTZUK,
ZER/ZERTZUK,
ZEIN/ZEINTZUK**

Nor, *zer* eta *zein* galdetzaileak mendebaleko literatura tradizio batean, **-tzuk** atzizki pluralgilea dutela agertzen dira. Azken molde horiek ez dira, ordea, horrela erabiliak izan beste literatura tradizioetan:

Ezen bazakian hatseandanik Iesusek zein ziraden sinhesten etzutenak (Lç Io 6, 64).

Zer dira üdüri hurak? (Bp I 69).

Zein dira Gizunaren laur Ürrenbüriak? (CatS 35).

Nork düte Ordenen eta Tonsüraren emaiteko züzena? (CatLan 158).

Nortzuk dira borondatezko pobreak? (Cap 83).

Aen ofizioa leelengoak eta prinzipaleak, zeintzuk izan zirean? (Cap 22).

Zertzuk-i dagokionez, ordea, kontua nahasiagoa da. Testu zaharrenetan badirudi *zer* besterik ez dela agertzen:

Ze gauza dira induljenziak? Cap 67 (kideko joskera 39, 60, 70 e.a.-tan).

Zer dira fedeko artikulua? Cap 26 (kideko joskera 82.ean).

Zertzuk-en lehen agerraldiak hurrengo mendekoak dira:

Zertzuk dira angeruak? Olaetxea 51.

Eta XIX. mendeko bizkaitar klasikoen artean ere, *zertzuk* baino askozaz gehiago erabiltzen da *zer*:

Zer dira erreguelduak? Aupatsak esan gurako dozu. Mg PAb 119.

Zer dirian bigiraak. LB Olq 105.

Azken urteotan, bizkaierazkoak soilik ziren *nortzuk*, *zeintzuk* eta areago *zertzuk* aski hedatu dira euskara idatzian Hegoaldeko zenbait idazleren artean.

Euskaltzaindiak, kontuan harturik forma atzizkidunak (*nortzuk, zertzuk, zeintzuk*) literatura tradizio jakin bati lotuak daudela, hau erabakitzen du: *nor, zer* eta *zein* formei lehentasuna ematea. Ez ditu, ordea, atzizki pluralgileak dituzten formak inola ere gaitzes-ten. Orokorki duten izaera markatua aitortzen zaie soil-soilik, eta modu horretan -forma markatu gisa esan nahi da- aurkezten, bai eta onesten ere.

Edonola ere, forma hauen deklinabideko paradigmak hauek dira: *nortzuk, zertzuk, zeintzuk* (abs), *nortzuek, zeintzuek, zertzuek* (erg), *nortzuei, zertzuei, zeintzuei* (dat), e.a.

(Euskaltzaindiak, Bilbon, 1994ko azaroaren 25ean onartua)